


UDA IKASTAROA • TopaGune

**Harremanak, lurraldea eta sostengua:
Gipuzkoan komunitatea zaindu
eta eraikitzea**



Donostia - Zarautz

2026.09.15

Miramar Jauregia

2026.09.16

Santa Klara komentua



Kolaboratzailea:



TopaGune • 2026

Harremanak, lurraldea eta sostengua: Gipuzkoan komunitatea zaindu eta eraikitzea



Ikastaro honek gizarte-zerbitzuak, zaintzak eta komunitate-bizitza ulertzeko beste modu bat aztertzeraz gonbidatzen gaitu.

Pertsona eta komunitatea, harremanak eta loturak erdigunean jartzen dituen begirada bat proposatzen du; lurraldearen, egunerokotasunaren eta kolektiboaren indarra onartzen duena; eta herritarrek bere ongizatearen protagonista gisa ulertzen dituen.

Loturak eraikitzean, elkarrekin sortzean, horizontaltasunean eta gertuko laguntzan oinarritzen gara pertsonekin lan egiteko eta laguntza emateko moduan. Eraldaketarako efektu biderkatzailea duen ikuspegiaz ari gara; pertsonak, taldeak, zerbitzuak, ekipamenduak eta auzoak eraldatzeko gai denaz.

Egun, filosofia hori bat dator Gipuzkoako marko komunitarioarekin. Marko horrek gizarte-ekintzako politika publikoak bultzatu nahi ditu, gizarte-kohesioan, partaidetzan eta konpromisoan oinarritutako borondate eraldatzailearekin. Horrela, lurralde

honek bere kapital soziala eta sare komunitarioa indartzearen, eta administrazioa rol erraztatzailean eta eraikitzailean jartzearen alde egiten du.

Horri gehitu behar zaio Gipuzkoako zaintza eta laguntza eredua; duintasuna, pertsonalizazioa eta autodeterminazioa defendatzen dituen marko berritzailea, zerbitzuak ongizatean eta bizi-kalitatean benetako emaitzetara bideratzen dituen.

Ikastaroa Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu du, zehazki, Gobernantza Departamentuko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak, Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentuko Zentroen Kudeaketa Integraleko Zerbitzuarekin lankidetzan. Bartzelonako Udaleko Ekintza Komunitarioko Zerbitzuak ere parte hartzen du.

Ikastaroaren markoa eta printzipioak:

- **Pertsonalizazioa**, autodeterminazioa eta pertsonen eskubideak.
- Komunitatea, aukera gisa.
- Harremana, esku hartzeko tresna gisa: pertsonak "izan eta egon" ahal izateko espazioak sortzea, ez bakarrik "arreta jasotzera etortzeko".
- Kolektiboa osatze- eta ongizate-iturri gisa: prozesu pertsonal asko espazio kolektibo batean bakarrik loratzen dira.
- Bidelagun diren profesionalak: gurekin batera dabilzan profesionalak, ez gainetik jartzen direnak.
- Benetako partaidetza, ko-sorkuntza: proiektuak "barrutik" sortzen dira, pertsonen bizitzatik eta benetako interesetatik.
- Eremu seguruak, abegikorak eta lurraldeari irekiak: bulegotik irtetea, ateak irekitzea, komunitatean ikusgai izatea.
- Efektu biderkatzailea: ekintza komunitario batek praktika, sare eta lotura berriak sortzen ditu, hedatzen direnak.
- Ekintza komunitarioa, desberdintasunen aurka borrokatzen duen eta gizarte-kohesioa sortzen duen politika publiko eraldatzaile eta zeharkako gisa.
- Administrazioaren rola: erraztea eta eraikitzea (dena ez zuzentzea).
- Lurraldearen gizarte-azpiegitura eta harremanen kapitala, funtsezko baliabide gisa.
- Eskubideetan, duintasunean eta pertsonalizazioan oinarritutako zainketa-eredua, estandar ebaluagarriekin eta azpimarra eginda ongizate-emaitzetan.

Nori dago zuzenduta?

Interesdun orori.

Eta baita begirada komunitario, erlazional eta eraldatzaileago batekin lan egin nahi duten udal, erakunde, elkarte eta pertsonen ere. Honako hauekin lotutako pertsonak, profesionalak eta ikasleak:

- Gizarte-zerbitzuak eta politika publikoak.
- Ekipamendu eta zerbitzu komunitarioak.
- Osasuna, hezkuntza, kultura eta parte-hartzea.
- Esku-hartze soziala, babesa eta laguntza.
- Lurraldeko elkarteak, kolektiboak eta erakundeak.

Programa

2026.09.15 • Miramar Jauregia, Donostia

“Begirada zabaltzea”: zentrotik lurraldera, arretatik harremanera

9:00 – 9:30 Irekiera instituzionala eta ikastaroaren aurkezpena

Mikel Pagola, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-Sozialeko zuzendaria

Maider Kortaxarena, EHU UIK Uda Ikastaroetako idazkari akademikoa

9:30 – 11:00 Hitzaldi markoak: Eraldaketa begirada aldaketa batekin hasten da

Yayo Herrero, antropologoa, ingeniaria, irakaslea eta ekintzaile ekofeminista

Berta González, Gizarte Eskubideen Estatuko Idazkaritzaren Kabineteko aholkularia. Gizarte Eskubideak, Kontsumoa eta Agenda 2030 Ministerioa

11:00 – 12:15 Zentrotik lurraldera, arretatik harremanera. Esperientziak eta ikaskuntzak Bartzelonatik

11:00 - 11:20 Zein da ikuspegia eta nola egiten da lan. Bet Bàrbara eta Mireia Albors

11:20 - 11:40 Comunitàriament. Cecilia Roig

11:40 - 12:00 El CAI de la Marina. Cristina Creus eta Damna Prudencio

12:00 - 12:15 Galderetarako tarteak

12:15 – 12:45 Atsedena - Kafea

12:45 – 14:30 Elkarrizketa profesionalen artean eta bertaratutakoekin

Zer aldatzen da lurraldera ateratzen garenean?

Zer gertatzen da? Erronka nagusiak

Eva Salaberriak gidatua (Donostiako Udal zeharkakotasunaren arduraduna), lurraldeko profesionalen parte-hartzearekin:

- Andoni Zulaika, Zabalduz
- Begoña Calleja, Donostiako adineko erretiratuaren elkarteei laguntza teknikoa emateko udal-zerbitzua
- Elena Rikondo, Saiaz Mankomunitateko gizarte langilea

Eta bertaratuak, Prometea lantaldeak lagunduta

2026.09.16 • Santa Klara komentua, Zarautz

“Komunitatean zaintzea”: zainketak, harremanak eta pertsonalizazioa

9:00 – 9:15 Irekiera

Irune Galarraga, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zentroen
Kudeaketa Integraleko zuzendaria
Idoia Otaegi, EHU UIK Uda Ikastaroetako zuzendari akademikoa
Garbiñe Oiarbide, Zarauzko Udaleko zinegotzia

9:15 – 10:15 Hitzaldi markoa: Herritartasuna eta eskubideak

María Muñoz, Matia Fundazioko egoitza-zuzendaria
Simon Duffy, Citizen Network eta Sheffieldeko Ongizatearen
Erreformatarako Zentroaren sortzaileetako bat
Mercedes Rodriguez, Matiako Bizi osorako etxebizitzak

10:15 – 11:30 Gipuzkoako esperientziak eta ikaskuntzak

10:15 - 10:35 Klabe partekatuan. Nuria Ambrós, Inti Fraile eta Marijo Garate
10:35 - 10:55 Gizartelab esperientzia. Koro Muro
10:55 - 11:15 Konektore komunitarioak, niretzat ere bai? Marisol Barandiaran eta
Maria Romero
11:15 - 11:30 Galderetarako tarte

11:30 – 12:00 Atsedena - Kafea

**12:00 – 13:00 Elkarrizketa zentro eta zerbitzuetako pertsona eta
profesionalekin**

Ikaskuntzak, mugetatik haratago

Nuria Ambrosek gidatua, honako hauen partaidetzarekin:

- María Nogues eta Bagarako kidea
- Xabier Madina, Matia Fundazioko Giza Eskubideen Batzordea
- "En clave compartida" koprodukzio taldeetako kideak

13:00 – 14:20 Zestoatik ikastarora; elkarrizketaren artea

Amancay Gaztañaga eta Zestoako herritarrak
Eta bertaratuak, Prometea lantaldeak lagunduta

14:20 – 14:30 Ikastaroaren itxiera